

HAMABOSTERO BILTZEN DIHA

Eginkizunak ugari dira aldizkari batetan. Eta mila moduz parte har daiteke. Saitxo hontan, hamabostero hamabostero ANAITASUNAREN zenbakiak, nolabait asmatzeko eta eratzeko bildu ohi diren zenbait gizon aurkezten ditugu. Denak aipatzekotan, beste asko ere hementxe sartu beharko genituzke. ANAITASUNAN ugari dira bai bulego^o lanetan dihardutenak eta bai berriak bidaltzen salatzen direnak. Ezin hala ere, aipatzeke^o utzi, Idazle gisa,^o ANAITASUNAREN horrialdeak horrer^o leialki eta egoki betetzen dituzten batzu, hala nola, Paulo Agirrebaltzategi, Gexan Lantziri, Joseba Iutxausti, Erramun Gerrikagoitia, Antton Inurritegi, Joan Mari Mendizabal, eta abar.



Jose Ramon Etxebarria
Bilbao

Gernikan jaioa, 1948.eko maiatzaren 27an. Industri Injinadorea, Teknika Energetikoetan berezitua. Lejoako Unibertsitateko Fisika Departamentuan ari da lanean. Azken urteotan «Mekanika eta Uhinak» eta «Fisika Jenerala» esplikatzeko aritu izan da.

Idazle bezala, bi arlotan dihardu lanean: artikulugintzan eta textugintzan. Bere artikuluetan zientzi galak erabiltzen ditu. Idazlan gehienak ANAITASUNAN agertu ditu. Haien helburua, euskara zientzi gaietarako egokitzea izan da.

Textugintzan, euskal metodoak eta ikastoletarako testu liburuak prestatzeaz arduratu izan da. Honela ondoko liburuskak idatzi eta argitaratu ditu: «Haizeak, euria eta klima», Donostiako EKTkoekin batera; «Uraren Indarra», «Materia aztertzen» (I. eta II.), Iñaki Zarragoarekin. Prestaturik baina argitaratu gabe, beste haur^o ditu: «Beroa aztertzen», «Elektrizitatea aztertzen» eta «Argia aztertzen». Lanik gehienak, ordea, taldean egin ditu, hala nola, Bizkaiko Alfabetatze taldekoekin «Euskalduntzen» (I., II. eta III.), eta IKER taldearekin prestatzen ari den «Saloka» (I., II. eta III.). Azkenik, atera berria den «Gizartean» izeneko liburuan, berak Udako Euskal Unibertsitatean emanikako hitzaldi bat agertzen da.